


# IPARRALDEKO EKOIZPENEN KATALOGOIA

Catalogue des  
productions  
d'Iparalde

**53. DURANGOKO AZOKA**  
2018ko abenduaren 5etik 9ra



# Iparraldetik ere «DA! Asko dira»

**53. edizioko leloa "DA! Asko dira" izango da.**

*"Euskal kultura oparoa eta aberatsa da, eta aniztasun horren isla da Azoka".* Gerediaga elkarteko lehendakaria den Nerea Mujikak dion bezela, aurten, Azokak bere aniztasuna aldarrikatuko bait du edizio honetan. Izpiritu hori atxikiz, **Txakur Gorria sormen kolektiboa izan da aurtengo kartelaren egilea.**

Nerea Mujikak azpimarratu duen bezala, sormenaren lurraldea anitza da, zentzu fisiko eta metaforikoan: *"Bertan elkartzen da sortzaile berria eta ibilbide luzekoa, garaikidea zein tradizionala, abangoardista nahiz herrikoia eta komertziala bezala apurtzailea".*

Iparraldeko parte hartzaileak dinamika hortan sartuko dira baita ere eta haien ekoizpenak naturalki sartzen dira lelo honen ildoan. Aurten ere berritasun ugarirekin izanen dira azokan. Urtero bezala, proposamen anitza izanen da eta kultur ekoizpen zabal bat aurkitzen ahalko da: haur literatura, diskak, eleberriak, argazki liburuak, egutegi bat, olerki bildumak, literatur aldizkariak, ...

Orain duela **hamabi urte abiatu Gerediaga elkarte antolatzailearen eta Euskal kultur erakundearen** arteko partaidetzari esker, Ipar Euskal Herriko ekoizpenak argiago agertzen dira Durangoko azokan.

Urtero, azokan aurkeztuak diren berritasunen artean gutti gora behera **%10a Iparraldeko ekoizpenak dira: aurten ere kasik 50 berritasun aurkitzen ahalko dira azokan.**

**2018ko ediziorako datu orokorrak:**

**2018ko kartelaren sortzailea:** TXAKUR GORRIA sormen kolektiboa

**Stand kopurua:** 247

**Autoekoizleak:** 17

200 kultur ekitaldi baino gehiago

**Aurkeztuko diren berritasunak:** 439

**Liburuak :** 304 · **Diskak :** 93 · **Aldizkariak :** 18 · **Argitalpen elektronikoa :** 1 · **Bestelakoak (joko, agenda, egutegi, ...)** : 23

**Iparraldeko egituren datuak:**

9 erakusmahain (**Goienkale 21 – 29**) + autoekoizle bat

48 berritasun: 27 liburu, 20 diska (hauen artean 2 autoekoizpen), eta bestelako ekoizpen 1 (egutegia)

12 kultur ekitaldi: kontzertuak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak, ...

# «DA! Asko dira» : Une multitude de manières de vivre le Salon de Durango

Le thème de ce 53ème Salon de Durango est «DA! Asko dira» (« Il y a beaucoup de Durangoko Azoka!»)

« *La culture basque est riche et abondante, le Salon de Durango est le reflet de cette diversité* » Comme le souligne Nerea Mujica, présidente de l'association Gerediaga, le Salon va revendiquer avec l'édition de cette année une réelle pluralité. C'est dans cet esprit que le collectif de **création Txakur Gorria a réalisé l'affiche de cette année.**

Nerea Mujica souligne que le territoire de la création est varié, au sens physique comme métaphorique: «*On trouve au Salon le nouveau créateur comme celui de longue date, contemporain comme traditionnel, populaire tout en étant avant-gardiste et commercial tout en rompant avec ce système*». Les créateurs d'Iparralde s'inscrivent également dans cette démarche ainsi que leurs productions.

Ainsi on retrouvera cette année encore des participants de la première heure, ceux de longue date mais aussi de jeunes artistes qui s'autoproduisent. Comme chaque année la production des structures d'Iparralde sera elle aussi riche et variée, en offrant un large éventail de produits divers : **littérature jeunesse, romans, production musicale variée, livres photos, un calendrier, des recueils de poésie, des revues littéraires, ...**

Le partenariat impulsé il y a plus de **douze ans entre l'association Gerediaga et l'Institut culturel basque** permet d'offrir plus de visibilité aux productions d'Iparralde. En effet cette année encore, **avec quasiment une cinquantaine de nouveautés, elles représenteront plus de 10% de la production totale.**

**L'édition 2018 en quelques chiffres :**

**Création de l'affiche 2018 :** Le collectif Txakur Gorria

**Nombre de stand :** 247

**Autoproductions:** 17

**Plus de 200 évènements culturels**

**Nombre de nouveautés présentées :** 439

**Livres :** 304 · **Disques :** 93 · **Revue :** 18 · **Publication électronique :** 1  
· **Autres (jeux, agenda, calendrier, ...)** : 23

**Chiffres des structures d'Iparralde:**

**9 stands (Goienkale 21 – 29) + une autoproduction**

**48 nouveautés :** 27 livres, 20 disques (dont 2 autoproductions), et un autre type de produit (calendrier)

**12 rdv culturels** (présentations de livres, de disques, ...)

# IPARRALDEKO EGITURAK - Les participants d'Iparralde

Aurten, Iparraldetik 11 egitura izanen dira azokan: **5 argitaletxe, 4 diskoetxe, bestelako egitura bat eta autoekoizpen bat**. Iparraldeko partaide guzi hauek, espazio bateratu batean elkartuak dira urte guziz bezela (**Goeinkale 21-29**).

Elkar argitaletxearen Iparraldeko adarra Elkar-en mahai nagusian ordezkaturia da. Autoekoizleen plazan (61&62), Iparraldeko talde bat atsematen ahalko da .

*11 structures d'Iparralde seront présentes cette année : 5 maisons d'édition, 4 labels discographiques, une autre structure et une autoproduction. Comme pour les éditions précédentes, tous ces acteurs seront regroupés dans un même espace (Goienkale 21 – 29). A noter, que la branche Iparralde de la maison d'édition Elkar sera intégrée au principal stand de la maison d'édition et le coin des autoproductions (61&62) accueillera un groupe de musique d'Iparralde.*

**Argitaletxeak · Maisons d'édition:** Maiatz, Ikas, Gatuzain, Zortziko & Elkar

**Diskoetxeak · Labels discographiques:** Agorila, ZTK, Saroia & Belarri

**Bestelako egitura · Autre structure:** Iparraldeko Ikastolak

**Autoekoizpena · Autoproduction:** Antton Larrandaburu & Bitxiloreak

Maiatz.

iKAs



elkar

AGORILA

belarri

SAROIÀ



# AURKIBIDEA - Sommaire


---

<b>LIBURUAK - Livres</b>	<b>6</b>
<b>DISKAK - Disques</b>	<b>14</b>
<b>BESTELAKO EKOIZPENAK - Autres productions</b>	<b>18</b>
<b>HITZ ORDUAK - Les RDV</b>	<b>21</b>
<b>ORDUTEGIA ETA KOKAPENA - Horaires et plan</b>	<b>22</b>

# IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres

## ELKAR ARGITALETXEA




### GERNIKA 81

Egilea | auteur: Xabi Soubelet

Generoa | Genre : Eleberria · Roman

1937.04.26 Gernikako herria bonbardatua izan zen. Donibandar margolari eta idazleak trilogia artistiko bat asmatu du oroimen historiko hortan oinarritua: emanaldi bat, margolan bat eta azkenik eleberri hori.

*Le 26.04.1937, Gernika était bombardée par l'aviation allemande. Le peintre et écrivain de Saint-Jean-de-Luz a imaginé une trilogie artistique fondée sur ce souvenir historique: un spectacle donné sur scène, un tableau, et enfin un roman.*



### GIRGILERI ANDEREA

Egilea | auteur: Maialen Hegi-Luku

Generoa | Genre : Eleberria · Roman

Muniaren istorioaren bidez, Maialen Hegi-Lukuk irakurlea bipolaritasunaren mundu ilun eta konplexoan eramatean du. Mundu ilun honi sentipen berri bat emanez, inungo dohakatasunik gabe.

*Par le biais de l'histoire de Munia, Maialen Hegi-Luku plonge le lecteur dans le monde sombre et complexe de la bipolarité. Un monde sombre, mais dont elle ne donne aucune vision misérabiliste, invitation au contraire à en découvrir une perception renouvelée.*



### HANDITU ETA

Egileak | auteurs: Sandrine Beau, Nicolas Gouny (ilus.)

itzulpena | traduction: Nahia Zubeldia

Generoa | Genre : Haur saila · Album jeunesse

Handitu eta badakizu zer izan nahi dudan?...

*Sis-tu ce que je veux quand je serai grand?...*

### POEMA BAT DA HERRI HAU - CE PAYS EST UN POÈME

Egileak | auteurs: Séverine Dabadie & Itxaro Borda

Generoa | Genre : Argazki & olerkiak · Photos & poésie

Hizkuntza | langue : euskara & français

Séverine Dabadie argazkilariak ezusteko begirada bat eskaintzen du hemen Euskal Herria ezagutzeko. Itxaro Bordak bere "airezko zapatak" jantzi ditu ibilbide inizatiko hortan segitzeko. noraeze poetiko batean.

*La photographe Séverine Dabadie offre ici une perspective inattendue pour parcourir le Pays Basque. L'écrivaine Itxaro Borda a chaussé ses « semelles de vent » pour la suivre le long de ce parcours initiatique, au fil d'une errance poétique.*



# IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres



## UTZAK MUTUR HORI

Egileak | auteurs: Sandrine Beau, Nicolas Gouny (ilus.)

itzulpena | traduction: Nahia Zubeldia

Generoa | Genre : Haur saila 4-8 urte · Album jeunesse 4-8 ans

Betiko ohitura bat da: otsoa da ipuinetako gaiztoa. Horrela dago eta horrela izango. Salbu otsoa, noiztenka aspertzen ahal dela eta grebaren egitea erabaki dezakeela.

*C'est une tradition, le loup doit être le méchant de l'histoire. C'est ainsi et il ne peut en être autrement. Sauf que parfois, le loup peut en avoir marre et décider de faire grève.*

## GATUZAIN ARGITALETXEA



## ZAD BIZI DUTENEN AHOTIK

Egilea | auteur: Iñaki Etxeleku Thikoipe


Generoa | Genre : Saiakera · Essai

Ko-argitalapena | co-édition: Txalaparta argitaletxea

Notre-Dame-des-Landes, borroka lekua eta esperantza sortzailea. Iñaki Etxeleku ZADen egon da. Nola bizi, ekoiztu eta trukatu kapitalismoaren kontsumo eta alienazio legeetatik bereiz? ZADeko bizipen kolektibo eta militante horiek hurbilagotik ezagutuz, autonomiaren eta autogestioaren nondik norakoak hobe ulertu nahi dituenarentzat.

*Notre-Dame-des-Landes, lieu de luttés et créateur d'espairs. Iñaki Etxeleku a été à la ZAD. Comment vivre, produire et échanger en s'affranchissant du consumérisme capitaliste et de l'aliénation des lois ? Pour ceux qui souhaitent mieux comprendre ce mode de vie collectif et militant, les aléas de l'autonomie et de l'autogestion.*

## HATSA ELKARTEA



## HATSAREN POESIA 2018

Egileak | auteurs: Kolektiboa

Generoa | Genre : Olerkia - poésie

20 garren olerki bilduma honetan, ahapetik... xumeki ...

euskal 114 olerkarien emaitzak aurki ditaizke. Irakurtze on !..

*20ème recueil de poésie publié par HATSA qui rassemble 114 po.ètes basques.*

### IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA



#### ENE ADISKIDEA IZAN NAHI DUZU?

Egilea | auteur: Eric Battut itzulpena | traduction: JL Davant

Generoa | Genre : Haur literatura 6 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 6 ans

Sagu berdeak bera bezalako adiskide bat xerkatzen du, baina animalia guziak bizkarrez jartzen zaizkio. Elefante batekin zorte hobea ukanen ote du? Gaiak : adiskidetasuna, desberdintasuna, esperantza, beldurra. Ipuina entzungai IKASen webgunetik.

*Une souris verte cherche un ami vert comme elle, mais tous les animaux refusent d'être son ami...aura-t-elle plus de chance avec un éléphant ?*

*Thèmes : amitié, différence, espoir, peur . Enregistrement du conte sur le site d'IKAS.*



#### GEREZIONDOA

Egilea | auteur: Alba Garcia-Puig itzulpena | traduction: JL Davant

Generoa | Genre : Haur literatura 6 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 6 ans

Gerezien denbora labur-laburra da, eta aitatzik landatu gereziondo txikiak handitzeko behar duena hain luzea !

Nola Maiderrek bere arbolañoa handitzen lagunduko du?

Gaiak : natura, denbora. puina entzungai IKASen webgunetik.

*Si le temps des cerises est trop court, celui pour que grandisse le petit cerisier planté par grand-père semble vraiment interminable.*

*Comment Maider aidera son arbrisseau à pousser ?*

*Thèmes : nature, temps. Enregistrement du conte sur le site d'IKAS.*



#### GORRI !

Egilea | auteur: Alice Brière-Haquet - Elise Carpentier (ilus.) | itzulpena | traduction: JL Davant

Generoa | Genre : Haur literatura 6 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 6 ans

Behin, bazen, nonbait, han, oihan xoko batean, amatxiño bat, zinez pollita. Amatxiño horrek eguna zerman arropa gorria trikotatzen, trikotatzen, bereziki alabasoarentzat...


Gaiak: haurren eta jende helduen arteko harremanak, Txanogorritxu. Ipuina entzungai IKASen webgunetik.

*Il était une fois tout au fond d'un bois une bien jolie petite mamie. Cette petite mamie passait ses journées à tricoter, tricoter, des vêtements rouges surtout pour sa petite-fille...*

*Thèmes : relation enfant-adultes, le petit chaperon rouge. Enregistrement du conte sur le site d'IKAS.*

# IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres



## MUZAREN LOALDIA

Egileak | auteurs: Zemanel - Madeleine Brunelet (ilus.) | itzulpena | traduction: JL Davant


Generoa | Genre : Haur literatura 4 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 4 ans

Muza mutiko ttipiak loaldi bat egin nahi du. Begiak kasik hetsiak dituelarik, animalia zenbait bederazka heldu zaizkio. Ezin pausa! Baina Muza abila da eta - kasik - denen haizatzeko manera atzeman du. Loari eta arrabotsari buruzko ipuina. . Ipuina entzungai IKASen webgunetik.

*Un petit garçon, Moussa, décide de faire une sieste. Mais plusieurs animaux viennent successivement lui rendre visite et l'empêchent de dormir.*

*Cependant Moussa est malin et va trouver une solution pour tous les faire partir, enfin... presque tous.*

*Conte-randonnée sur le sommeil et le bruit.. Enregistrement du conte sur le site d'IKAS.*



## NOR ZEREN BELDUR DA ?

Egilea | auteur: Coralie Saudo - itzulpena | traduction: JL Davant

Generoa | Genre : Haur literatura 6 urtetik goiti · Littérature jeunesse à partir de 6 ans

Adrienen lagunak zernahiren beldur dira; bera ez; deusen beldur ez da. Horregatik lagunak aspertzen ditu eta azkenean haiek baztertzen dute. Lagunik gabe, nola izanen da Adrien? Zer gertatuko zaio? Gaiak : beldurra, adiskidetasuna. Ipuina entzungai IKASen webgunetik.

*Des petits personnages très attachants dévoilent leur peur : Erik a peur du noir, Gilen a peur des crocodiles... Mais Adrien, lui, n'a peur de rien. Il commence même à ennuyer un peu ses amis à n'avoir jamais peur de rien ; alors, ils le délaissent petit à petit. Mais quand il n'y a plus de copains, que va-t'il arriver à Adrien? Thèmes : peur, amitié. Enregistrement du conte sur le site d'IKAS*

## MAIATZ ARGITALETXEA



## 14 - 18 OROITUZ

Egileak | auteurs: Kristian Larrue & Lucien Etxezaharreta

Generoa | Genre : Argazki liburua · Livre de photographies

Argazki liburu honek 14eko gerla denboran milafrangar batek euskaraz etxera bidali postalak biltzen ditu. Molde hunkigarrian gerlako berri eta sendipenak agertzen dira.

*Ce recueil de photographies montre les cartes postales écrites en basque, envoyées du front pendant la guerre de 14 par un habitant de Villefranque. C'est un émoignage émouvant de la vie des soldats.*

# IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres




## 58ko GERRA

Egilea | auteur: Alfonso Etxegarai

Generoa | Genre : Saiakera · Essai

Sao Tome uhartean desterratua denak ETaren gerla bururatuaz gogoeta gazi gozoak azaltzen ditu. Barnetik ikertu minen zilatze bat.

*Exilé dans l'île de Sao Tomé, l'auteur fait part de ses réflexions sur la fin de la guerre et la trajectoire d'ETA. Une introspection des douleurs qui ont frappé ce pays.*




## Bidaia Nafarroara euskaldunen oldartzearen denboran

Egileak | auteurs: Agosti Xaho - itzulpena | traduction : Jakes Sarraillet & Xabier Zabaltza

Generoa | Genre : Eleberri historikoa · Roman historique

Agosti Xaho zuberotarrak euskal abertzaletasunaren bideak ireki zituen 1830 urte horietan liburu honen bidez. Batuan idatzi itzulpen honek obra klasiko bat eskaintzen digu.

*Augustin Chaho, par cet ouvrage, ouvrit la voie du nationalisme basque dans les années 1830. Cette première traduction en euskara batua nous offre une œuvre classique.*




## Ezin erraneko hitzak

Egilea | auteur: Ttote Etxebeste

Generoa | Genre : Olerkia · Poésie

Euskal militante baten bide edo sendipenetan sartzen da olerki hauen bidez, poesiak indartzen eta biziarazten gaituzten ildoetara.

*Ces poèmes nous introduisent sur les chemins d'un militant basque, par les sillons intensément vivifiés par la poésie.*



## Maiatz aldizkariak 67 & 68

Egileak | auteurs: Kolektiboa


Generoa | Genre : Literatur aldizkaria · revue littéraire

Maiatz aldizkariak, betiko bidea jarraikiz sorkuntza lanak argitaratzen ditu, poesia, elelabur, itzulpenak bilduz, gaurko sorkuntzak erakutsiz

*La revue littéraire Maiatz, en continuant sa voie, publie des créations diverses, poésie, nouvelles, traductions, montrant un aspect de la création contemporaine.*

# IPARRALDEKO EKOIZPENAK

LIBURUAK - Livres



## Olerki bilduma


Egilea | auteur: Marikita Tambourin

Generoa | Genre : Olerkia · poésie

Bizi osoan idatzi olerki bilduma honek gora behera eta sendimendu asko azaltzen ditu. Hizkuntza gozo batek pertsona baten munduaren barnean sarrarazten du.

*Ce recueil de poèmes écrits durant toute une vie exprime beaucoup de sentiments et de vécus. Ecrits dans un langage tendre ils nous introduisent dans un monde personnel.*

## SÜ HAZIA ELKARTEA



## AINTZINA PIKA

Egilea | auteur: Jean Mixel Bedaxagar

Genre | Generoa: Ikerlana · Recherche

Zuberoko jauzien, sonuegileen eta dantzarien inguruan. JM Bedaxagar musikari eta dantzari zuberotarrak herrialdeko dantzari eta musikarien berri jakin nahian liburua ondu du. Lan hori hainbat ikerketaren emaitza da, eta Züberoako 180 dantzari eta musikariren kontuak, argazkiak... biltzen ditu.

*Autour des sauts, des musiciens et dans danseurs en Soule... Musicien danseur souletin, JM Bedaxagar a rassemblé dans cet ouvrage le fruit de plusieurs recherches sur 180 danseurs et musiciens souletins dans un souci de transmission pour les générations futures.*

## ZORTZIKO ARGITALETXEA



## Des bateaux et des hommes - Itsasuntziak eta gizonak

Egileak | auteurs: Jean & Daniel Velez

Generoa | Genre : Argazkiak · Photographies

Argazki liburua, 50 eta 70 hamarkaden arteko Euskal Kostaldeko arrantza-portu ospetsuaren bizitza eta pertsonen ikusizko oroitzapenari omenean.

*Un livre de photographies en hommage à la mémoire visuelle des gens et de la vie du célèbre port de pêche de la Côte Basque pendant l'âge d'or des années 50 aux années 70.*




## Euskal Herria beti!

Egilea | auteur: Joseba Aurkenerena Barandiaran

Generoa | Genre : Narrazioa · narration

Honako hau euskara, euskaldunak eta Euskal Herria gaitzat dituen liburua da. Historia, kultura, diaspora, pasadizoak, bidaiak, mito eta tradizio zaharrak, atsotitz eta irain bildumak... dira, besteak beste, liburuaren nondik norakoa gidatzen duten arloak. Bihotzez eta pasioz idatzia dela erran daiteke.

*Cet ouvrage a comme sujet la langue basque, les basques et le Pays Basque. Il est structuré à partir de jalons thématiques dont les points de repères sont : l'histoire, la culture, la diaspora basque, des événements, voyages, mythes et traditions ancienne, refrains, recompilation d'insultes... pour former un ensemble véritablement ethnographique qui aborde finalement l'ensemble de l'entité basque.*



### Muxuak

Egileak | auteurs: Ainara Maia Urroz & Iñaki Martiarena Otxotorena  
"MATTIN"

Generoa | Genre : Olerkia · Poésie

Muxuak eta mezuak bateratu nituen duela hamar urte, eta maiteminez idatzi nituen olerkiok sentiberatasunez ene bakardadean erantzunik ezean. 2016an Mattinek, Iñaki Martiarenak, opari-muxu bat eman zidan eta nire poema-bilduma ilustratu zidan, olerki bakoitzeko marrazki bat.

*J'ai combiné les bisous et les messages il y a dix ans déjà, et j'ai écrit des poèmes en amoureux puisque je n'ai eu pas eu de retour de la part de mon chéri. En 2016, Mattin, Iñaki Martiarena, m'a fait un cadeau en illustrant mon recueil de poèmes, avec un dessin pour chaque poème. Muxuak était né.*

## ZTK LIBURUAK



### MAMAIAKO

Egilea | auteur: Amaia Hennebutte

Generoa | Genre : Haur Literatura · Littérature jeunesse

A. Hennebutte-n 11. euskal haur sorkuntza da, hilabete batez Hendaiako Nekatoenean idazkera egonaldi baten fruitua. Ipuin filosofikoa da, betiko geure biziari eta geure izateari buruzko galderak pausatzen dituen kondaira. *Mamaiako est le fruit d'une résidence d'écriture à Nekatoenea à Hendaye en 2017. Pour son 11ème album jeunesse l'auteure aborde ici le thème du regard, celui que les enfants ont naturellement sur la nature et les êtres.*



### MURRUAK ERORTZEAN - Quand les murs tombent

Egileak | auteurs: Kolektiboa · Collectif

Generoa | Genre : Saiakerak · Essais


Murruek jende guzia mehatsatzen dute, beren iluntasunaren aldean edo bestean. Liburu hau E. Glissant edo P. Chamoiseau idazle antillarren idatzietan oinarritzen da : batetik elkarteak 2017an eraman lanaren bilduma da, bestetik, orokorkiago, etapa bat da gure egituraren bizitzan eta galderetan.

*Les murs menacent tout le monde, d'un côté et de l'autre de l'obscurité.*

*Centré sur le texte des deux intellectuels antillais E. Glissant et P.*

*Chamoiseau, cet ouvrage est à la fois un compte-rendu des activités de l'association en 2017, mais aussi une étape dans la structuration de notre structure et ses interrogations.*

### MIGELENIA ARGITALPENAK



#### GURE LURRA


Egilea | auteur: Xerar Urrutia

Generoa | Genre : Historioa · Histoire

Liburu honek gure lurraren historia, zahar-zaharra dena, horren urrundik heldu zaukuna, eta beti euskara hizkuntzarekin lotua izan dena, sinpleki kontatzen dauku. Paleolitotik haste da gaur egun arte. Erraiten ahalko litaik euskal zibilizazioaren hastapena dela. Ulertzen ahal da nondik, gu euskaldunok, heldu garen. Horretarako gertakari garrantzitsuenak aipatzen dira.

*Ce livre raconte simplement l'histoire de notre terre, cette histoire vieille de milliers d'années, qui vient de si loin et qui a toujours eu un lien avec la langue basque. On pourrait parler du début de la civilisation basque. Cette histoire va du Paléolithique à nous jours. On comprend ainsi la provenance des basques. On relate ici les faits les plus marquants qui démontrent aussi de la nécessité de parler basque pour la survie de notre Pays Basque.*

### BEGIRALEAK ARGITALPENAK




#### HERRRIA IRAKURTUZ. 100 lekukotasun

Egilea | auteur: Janbattitt Dirassar

Generoa | Genre : Narrazioa · Narration

Janbattitt Dirassar kazetari eta idazle ospetsua dugu Iparraldean. Hainbat egunkari eta aldizkrian idatzi eta idazten du, euskaraz zein frantsesez. Liburu zenbait plazaratu ditu, narrazio eta elaberri, batez ere. Oraingoan, HERRIA aldizkarian idatzi dituen 500 hitzaurre edo aitzin-solasetatik 100 bildu ditu. *Janbattitt Dirassar est un journaliste et auteur reconnu en Iparralde.. Cet ouvrage rassemble 100 textes issus d'éditos ou autres articles parus dans le journal HERRIA.*



#### ESKUZ ETA BEGIZ – 2. zenbakia. Literatura aldizkaria

Egilea | auteur: Begiraleak kultur elkarte

Generoa | Genre : Literatura aldizkaria · Revue littéraire

Donibane Lohizuneko Begiraleak Kultura Elkarteak badu talde bat euskarazko literaturaz ari dena : ESKUZ eta BEGIZ izenekoa. Iaz izen bereko aldizkariaren lehen zenbakia plazaratu zuen eta aurten bigarrena. Honen baitan orotarik biltzen da : narrazioak, kronikak, elkarrizketak, olerkiak...

*Au sein de l'association culturelle Begiraleak de Saint-Jean-de-Luz, existe une section littérature en langue basque nommée Eskuz eta Begiz. Ils ont publié l'année dernière le premier volume d'une revue littéraire et voici le second. On y trouve des narrations, des chroniques, des interviews, de la poésie, ...*

### AGORILA EKOIZPEN ETXEA



#### ALDAKETA

Egilea | auteur: Kriolinak

Generoa | Genre : Folk

Hirukote famatuak Aldaketa deitzen den disko huntan, sorkuntzaren bidea hartu du kantu berri batzuk gehituz haien betiko kantu xaharren erreperorioari . Berezia, berria bainan betiko goxotasun eta maisutasuna galdu gabe, egiazko altxor bat eskaintzen digu hemen kriolinak taldeak.

*Le trio a pour la première fois ajouté des compositions à leur répertoire de chants traditionnels, en collaborant avec plusieurs auteurs comme Jojo Bordagarray ou Iker Robles Aranguiz. Avec la douceur et la virtuosité habituelle, le groupe se réinvente pour nous offrir un petit bijou polyphonique.*




#### AZKEN HATZA

Egilea | auteur: Gorka Robles Aranguiz

Generoa | Genre : pop-rock

Gorka Robles Aranguiz ek bakarlari gisa aurkezten digun lehen lana : kasik osoki euskaraz abestua, kantu guziak sorkuntzak dira, lau idazle eta lau konpositoreen lanaren fruitua : Disko eder eta aberatsa Gorkaren maixutasuna deskobritzeko parada bikaina.

*Après une longue carrière de chanteur polyphonique, Gorka Robles Aranguiz nous livre ici un premier album solo. Essentiellement en langue basque et dans un style pop-rock, il est composé de titres originaux composés et écrits pour l'occasion : Un album très réussi où Gorka se révèle.*



#### BETI AINTZINA

Egilea | auteur: Adixkideak

Generoa | Genre : Abesbatza · chorale

Gizon abesbatzak 45 urte daramatza Europako bideetan euskal kantuaren ohoratzen. Erdi euskaraz kantaturik, aberastasun haundiko erreperorio bat hautatu du esperientzia haundiko talde hunek.

*Le chœur d'hommes Adixkideak édite un nouvel album pour fêter les 45 ans du groupe. « Beti aitzina », toujours de l'avant, quel beau programme ! Pour les membres du chœur, plus qu'un titre, une philosophie de vie.*



#### DANTZA PIKO : 20 URTE

Egilea | auteur: Patxi eta Konpania

Generoa | Genre : Dantzaldi herrikoia · Bal traditionnel

Patxi eta konpania taldeak , dantzaldiz dantzaldi 20 urtez ibili eta, bilduma eder hau eskaintzen digu : Euskal dantzeta gain, scottish edo bourrée besteak beste dantza tradizional kolektiboak aurkitzen ahalko dira ederki konpondurik. Lotu dantzari !

*Le groupe Patxi eta Konpania nous présente un album qui est le fruit de plus de 20 ans de carrière. Outre les danses basques, on peut aussi y trouver des scottish, des bourrées ou d'autres danses collectives européennes incontournables de nos bals folks. Entrez dans la danse !*




### EGIAZKOA

Egilea | auteur: Hats berri

Generoa | Genre : Abesbatza · Chorale

HATS BERRI itsasuar abesbatzaren disko eder huntan euskal kantu zaharrak entzuten ahal dira : Alaitasunez beterik, anaitasunez josirik, ohizko kantua eta lurraren amodioa abesten dute gehienik euskaraz bainan ingelesez eta españolez ere.

*Du souffle, de la joie de la bonne humeur...Et un amour inconditionnel du chant traditionnel basque et de sa terre. Le chœur d'hommes, originaire d'Ixassou, offre un beau travail choral en basque mais également en anglais et en espagnol.*



### EZINAGO MAITATURIK

Egilea | auteur: Michel Etcheverry

Generoa | Genre : Musika herrikoa · Musique populaire

Euskal tenore baxe nabartarra berriz dator osoki euskaraz kantaturiko disko huntan. Haustura nabarra eginez aurreko lanekin, Etxahun Iruriren kobla-bertsoak abesten ditu gaurkotasun haundiko konponketa batzuek lagundurik.

*Le ténor basque revient avec un 27 ème album « ezinago maitaturik » exclusivement chanté en langue basque. Il rend hommage à ETXAHUN IRURI en reprenant ses chansons avec des arrangements musicaux modernes et originaux..*



### LATITUDES

Egilea | auteur: ICBand

Generoa | Genre : World music

Kurdo bat, Uruguaidar bat, kantabriar bat eta bi euskaldun bildu dira eskaintza koloretsu eta aberats huntan ; bakoitzaren kulturen eta esperientzien arteko joan-etorriak trebetasun haundiko musikariek osaturik...

*Fran Lasuen et Joxean Martin se joignent à des artistes Kurde, Uruguayenne et un autre originaire de Cantabrie et nous livrent ce travail riche et coloré. Des allées venues musicales nourries des expériences et de la culture d'origine de chacun de ces musiciens reconnus*

### MUSIK'HARIA

Egilea | auteur: Naia Robles Aranguiz

Generoa | Genre : Folk


Disko eder huntan, Naia Robles Aranguiz-ek elgarri josten ditu bere bizian eragin handia ukan duten musikak bai kantari gisa bai orokorki nortasunaren eraikuntzan ; Bi gitarrista bikainek lagundurik, euskaraz, ingelesez espagnolez eta portuguesez ere gonbidatzen gaitu bidaia sentikor eta intismista batera.

*Dans ce disque, Naia Robles Aranguiz déroule le fil de sa vie à travers différentes chansons qui ont contribué à sa construction artistique et humaine.*

*Accompagnée par deux guitaristes d'exception, elle nous invite à partager un moment d'intimité multilingue et authentique.*



### BELARRI EKOIZPEN ETXEA



#### ZUMURRAK BALEKI

Egilea | auteur: Maddi Zubeldia & H-eden

Generoa | Genre : Folk

Maddi Zubeldiak "Zimurra baleki" belarri diskoetxearekin atera duen bere hirugarren diskoan, kantautore ibilbideari jarraitzen dio. Folk giroan musika eta poesia uztartzen ditu. Diska honekin, Maddik musikan adinean bezala aitzina doala erakusten digu, jakin minez eta gogotsu.

*Avec "Zimurra baleki", son troisième album produit et réalisé par le label Belarri, Maddi Zubeldia poursuit son chemin d'auteur compositeur interprète. On y retrouve son univers folk et son désir de marier musique et poésie. Maddi avance dans la musique comme dans la vie, curieuse et enthousiaste.*

### SARROIA DISKETXEA



#### ANAI

Egilea | auteur: Berçaits anaiak

Generoa | Genre : Euskal kantua · Chant basque

Baxe Nafarroa eta Xibero arteko mendien oihartzunetan sortu ziren Berçaits anaien ahotsak. Euskal kantua bihotzean daramate eta interpretazio indartsu bezain hunkigarri baten bidez eskeintzen digute erreperitorio hau ; gordin, harri bitxi bat bezala. .

*C'est dans les échos des montagnes, entre Basse Navarre et Soule, que sont nées les voix des frères Berçaits. Ils portent le chant basque en eux et nous en propose une interprétation aussi forte que touchante ; brute, telle une pierre précieuse.*


#### ELEMENTUAK

Egilea | auteur: Kalakan

Generoa | Genre : Euskal Herriko musika eta kantua · Chants et musique du Pays Basque

2015-ean argitutarako ELEMENTUAK diskoaren edizio berri bat azaltzen du KALAKAN-ek.

*C'est une nouvelle édition du disque ELEMENTUAK paru en 2015 que nous propose KALAKAN.*



#### MENDEALA

Egilea | auteur: Kalakan & Alexandre Arkhincheev

Generoa | Genre : EHko eta Mongoliako musika eta kantua · Chants et musique du Pays Basque et de Mongolie

Kalakan-ek bere kolaborazio berria aurkezten digu disko hunen bidez, Alexandre Arkhincheev artista buriatarekin batera. Kantu difoniko, morin-khuur, muxu gitarra... « Haizea » elementuari lotutako soinua sakon guzi hauek entzule bakoitzaren arimean bizi diren espirituak esnatzen ditu, biziaren jatorri sakonak gogoratuz.

*Kalakan nous présente ici sa nouvelle collaboration avec Alexandre Arkhincheev, artiste bouriate et maître du chant diphonique.*

*Le son si caverneux du chant diphonique rappelle les sources profondes de la vie, puis il anime les*

*esprits qui peuplent l'âme se trouvant à l'intérieur de chaque spectateur.*



### ZTK DISKAK



**14**

**Egilea | auteur: Pantxix Bidart - Alexis Therain**

**Generoa | Genre : Poesia eta musika unibertsala · Poésie et musique universelle**

Pantxix Bidart eta Alexis Therain musikariek bikote indartsu eta fina osatzen dute, texto poetikoen zerbitzuko den musika eskainiz, ardura bapatekoa.

*Alexis Thérain et Pantxix Bidart forment un duo fragile et puissant. La musique issue des influences de chacun (jazz, blues, rock, musiques traditionnelles,...) est universelle, les textes issus de la poésie basque contemporaine également.*

### DISTORZIOEN MUNDUAN

**Egilea | auteur: BBAX**

**Generoa | Genre : Ahots polifoniak & musika unibertsala · Voix polyphoniques & musique universelle**

BBAX (Behi Bideko Andere Xuriak) taldeak "Distorzioen Munduan" diskoa egin du, musikari lagun batzu gomitatuz : Ellande Etxeberri, Sébastien Desgrans, Xendarineko Ahizpak, Jurgi Ekiza, Paxkal Irigoyen eta Paxkal Indo.

*Le groupe BBAX (Behi Bideko Andere Xuriak) a invité plusieurs amis musiciens pour son nouveau disque "Distorzioen Munduan" : Ellande Etxeberri, Sébastien Desgrans, Xendarineko Ahizpak, Jurgi Ekiza, Paxkal Irigoyen et Paxkal Indo.*

### ILDOA

**Egilea | auteur: Jean Bordaxar**

**Generoa | Genre : Euskal kantua · Chant Basque**

ILDOA diskak bere hamabi kantoreak sorkuntzak dütü, eta honekin, Jean Bordaxar Xiberotar kantariak urte parrasta baten lana bürützen dü hor.

Gei ezbardin eta üsü oraikoak izatez, artistak bere poesiaren eta mintzajearen bidez, kümitatzen gütü bere probintzian bidaje lüze batetara.

*Le disque ILDOA (le sillon) avec ses douze chants qui sont tous des créations, est l'aboutissement de plusieurs années de travail du chanteur Souletin, Jean Bordaxar. Sur des thèmes variés et souvent d'actualité, l'artiste nous invite à un long voyage dans l'univers poétique et linguistique de sa province basque de la Soule.*



### MAIRU DANTZA

**Egilea | auteur: Mairu dantza**


**Generoa | Genre : Folk**

1730an Mairu dantza emaiten omen zuten Larresoroko ihauterietan, berek dakite nola. Mairua bertzea da, kanpotiarra, etorkina, desberdina dena. Bizkitartean, denak norbeiten mairuak gira. Mirentxu Aguerre-k (kantua eta perkusioak) eta Xabier Itzainak (gitarra, ud, xirula eta kantua) proposatzen dute hamabortz bat kantu laburrez osatu bidaia bat.

*On dansait la Mairu danza en 1730 lors du carnaval de Larressore. "Mairua" représente l'autre, l'étranger, celui qui est différent. Nous sommes tous un étranger pour quelqu'un. Mirentxu Aguerre (chant, percussions) et Xabier Itzaina (guitare, ud, xirula et chant) nous proposent un voyage de quinze chansons courtes écrites en Europe, en Amérique ou en Afrique, mais pas toujours dans des conditions exotiques rêvée.*



### AUTOEKOIZPENAK · Autoproductions



#### ANTTON LARRANDABURU & BITXILOREAK

Egilea | auteur: Antton Larrandaburu & Bitxiloreak

Generoa | Genre : Pop-rock / Folk-rock

2018an « Antton Larrandaburu & Bitxiloreak » folk-rock taldea sortu dute Antton Larrandaburu, Antton Araspin, Benjamin Labaka (baxua) eta Miguel Etxeberri (bateria) lagunek. Antton Larrandaburuk kantuak sortzen ditu, eta moldaketa guztiak elkarrekin egiten dituzte. Aurten, bederatzi kantuz osaturiko lehen disko eponimoa kaleratu dute.

En 2018, est né le groupe de folk-rock « Antton Larrandaburu & Bitxiloreak » avec Antton Larrandaburu, Antton Araspin, Benjamin de Labaca (basse) et Miguel Etxeberri (batterie). Antton Larrandaburu crée l'ensemble des morceaux, arrangés par l'ensemble du groupe. Cette année, ils ont publié leur premier album éponyme, composé de neuf morceaux.



#### GAZTE NAIZ GAZTE

Egilea | auteur: Mattin Lerrissa

Generoa | Genre : Folk

Oraingoan, sorkuntzaz osaturiko lan batekin heldu zaigu Mattin Lerrissa : Gazte naiz gazte. Berak sortutako kantuak dira denak. Hitzak aldiz, hainbat idazle eta poetarenak dira. Pantzo Hirigarai, Daniel Landart edo Manex Pagolarenak besteak beste.

*Cette fois-ci, c'est avec un album qui rassemble des créations composés par lui-même que Mattin Lerrissa est de retour : Gazte naiz gazte (Je suis jeune, jeune).*

*Les paroles, elles, sont de plusieurs écrivains et poètes du Pays Basque : Pantzo Hirigarai, Daniel Landart ou encore Manex Pagola.*



#### MANEZ ETA KOBREAK

Egileak | auteurs: Manez & Kobreak

Ekoizpena | Production: Kalapita productions

Generoa | Genre : Folk

Thierry Biscary-ren izen artistikoa da Manez. Hainbat taldeetan (Hegalka, Kokin, Kalakan...) aritu ondoren, bere kantuak aurkezten ditu Kobreak metalezko tresnen taldearekin. Bere ahaide, auzokide, adiskide edo ezagun batzuen bizi parteak kontatzen ditu Manez eta Kobreak diskan. Lurrarekin eta komunitatearekin duen harremana aipatzen dute kantuek.

*Manez est le nom artistique de Thierry Biscary. Après quinze ans de carrière (Hegalka, Kokin, Kalakan...), il présente son répertoire personnel accompagné des voix et cuivres du groupe Kobreak. Dans le disque Manez eta Kobreak, il raconte des tranches de vie de ses amis, ses voisins ou de membres de sa famille. Ses chansons parlent du lien qu'il a avec sa terre et sa communauté.*

# IPARRALDEKO EKOIZPENAK

DISKAK - Disques



## DUAL 2/2: BEHARREZKOA DA...HUTSA

Egilea | Auteur: Tristtan Mourguy eta HOREBA

Ekoizpena | Production: I.O. diskak

Generoa | Genre : Folk-Rock/ Pop-Rock

Dualitateari buruzko diska doble baten bigarren zatia da (lehenena dUAL[1/2] : GORDEKA, 2016ean aurkeztu

genuena). Bizia edo munduaren elementu guztietako "irakasitako" 2 aldeak (ona/txarra, xuria/beltza, egia/gezurra,...) jorratzen ditugu forma poetikoaz. Ahots bero eta apalatik apurketaraino goaz momento goxo eta indartsuak aldizkatuz.

*2ème volet d'un double album portant sur la dualité (nous avons présenté la 1ère partie dUAL[1/2] : GORDEKA en 2016). Nous y parlons des 2 faces de la vie, des éléments tels qu'on nous les a appris(bon/mauvais, innocent/coupable, vérité/mensonge,...) de manière poétique. Des moments murmurés jusqu'à la rupture, nous y alternons passages doux et puissants.*

## BESTELAKO EKOIZPENA - Autre production

### SEASKA

2019 Urtarrila	
Asteartea	1 Urats 1
Asteazkena	2 Alaitz
Osteguna	3 Jenofa
Ostirala	4 Euken
Larunbata	5 Edoaria
igandea	6 Izar
Astelehena	7 Erramun 2
Asteartea	8 Luken
Asteazkena	9 Julien
Osteguna	10 Gillen
Ostirala	11 Ecker
Larunbata	12 Eder
igandea	13 Joritz
Astelehena	14 Zuhaitz 3
Asteartea	15 Maore 3
Asteazkena	16 Markel
Osteguna	17 Andoni
Ostirala	18 Murgia
Larunbata	19 Maren
igandea	20 Bilintx
Astelehena	21 Aines 4
Asteartea	22 Bixintxo 4
Asteazkena	23 Oneka
Osteguna	24 Antiko
Ostirala	25 Paul
Larunbata	26 Sabin
igandea	27 Gatzone 5
Astelehena	28 Ixone 5
Asteartea	29 Oihan
Asteazkena	30 Etiko
Osteguna	31 Markele

## SEASKA FEDERAZIOKO IKASTOLEN 2019KO EGUTEGIA

Egilea | auteur: Seaska

Generoa | Genre : 12 orrialdeko egutegia

Artxibeetako argazkiekin apaindua da (ikastolen 50 urteak ospatzen baitira 2019an)

Euskal izendegiarekin osatua da.

*Traditionnel calendrier des ikastola comportant un répertoire de prénoms basques et décoré par des images d'archives (pour célébrer les 50 ans des ikastola en 2019)*

# IPARRALDEKO HITZ ORDUAK

Les Rendez-vous des créateurs d'Iparralde

1990etik liburu eta diskoen azokara kulturaren diziplina ezberdinak ordezkatzuz gune bereziak lotzen joan zaizkio Durangoko Azokari, eta Kulturaren Plaza bilakatu da. Gaur egun, 8 gune ezberdin aurkitzen ahal dira: Areto nagusia (Gogoetaren plaza), Kabia (Digitalaren plaza), Saguganbara (Ttiki eta handien plaza), Plateruena (Kontzertu handien plaza), Ahotsenea (Sortzaileen plaza), Irudiena (Ikus-entzunezkoen plaza), Szenatokia (Arte eszenikoen plaza) eta Azoka TB. Aurten Iparraldeko egileen aurkezpenak 2 guneetan aurkituko dira. Ohartzekoa da Ahotsenea 2 guneetan banatzen dela: Solasaldien gunea (idazle topaketak, mintzaldiak, ...) eta Zuzenezkoak (30 minutuko kontzertuentzat)

*Depuis 1990, le salon du livre et disque a souhaité offrir une place aux différentes disciplines culturelles en leur consacrant des espaces dédiés. Aujourd'hui la Place de la Culture est composé de 8 sites: Areto nagusia (la place de la réflexion), Kabia (la place du digital), Saguganbara (l'espace des petits et des grands), Plateruena (la place des gands concerts), Ahotsenea (la place des créateurs), Irudiena (la place de l'audiovisuel), Szenatokia (la place des arts scéniques) et Azoka TB. Cette année on pourra trouver des présentations des créateurs d'Iparralde dans deux de ces lieux. A noter qu'Ahotsenea est réparti en deux lieux: un lieu pour les rencontres d'auteurs, conférences, ...) et un lieu pour les concerts de 30 minutes.*

**AHOTSENEA**

**Sortzaileen plaza DA!**

**SAGUGANBARA**

**Ttiki eta handien plaza DA!**



# IPARRALDEKO HITZ ORDUAK



## AHOTSENEA - ZUZENEZKOAK

En direct

**ABENDUAREN 8a, larunbata** · Samedi 8 décembre

**15:40** **Tristtan Mourguy & Horeba** « Dual (2/2) beharrezkoa da ... Hutsa » (I.O.)

**ABENDUAREN 9a, Igandea** · Dimanche 9 décembre

**11:00** **Berçaits anaiak** « Anai » (Sarioia)

**11:40** **Mairu dantza** « Mairu dantza » (ZTK diskak)

**13:40** **Antton Larrandaburu & bitxiloreak** « Antton Larrandaburu & bitxiloreak » (autoekoizp)

**14:20** **Pantxix Bidart & Alexis Therain** « 14 » (ZTK diskak)

**17:00** **Maddi Zubeldia & H-Eden** « Zimurrak Baleki » (Belarri)



## AHOTSENEA - SOLASALDIAK

Rencontres d'auteurs

**ABENDUAREN 5a, asteazkena** · Mercredi 5 décembre

**18:00** **Thierry Biscary** « Manez & Kobreak » (Kalapita productions)

**ABENDUAREN 6a, osteguna** · Jeudi 6 décembre

**12:00** **Jakes Sarraillet & Xabier Zabaltza** « Bidaia Nafarroara euskaldunen oldartzearen denboran » (Maiatz)

**ABENDUAREN 8a, larunbata** · Samedi 8 décembre

**11:00** **Joseba Aurkenerena Barandiaran** « Euskal Herria beti! » (Zortziko)

**11:30** **Ainara Maia Urroz eta Iñaki Martiarena Otxotorena MATTIN** « Muxuak » (Zortziko)

**ABENDUAREN 9a, Igandea** · Dimanche 9 décembre

**18:30** **Xabier Erkizia, Arantxa Iturbe, Luca Rullo** « Afoniak » (Donostia Kultura & EKE)  
Perfoamntza · Performances



## SAGUGANBARA - Ttiki eta handien plaza

L'espace des petits et des grands

**ABENDUAREN 7a, Ostirala** · Vendredi 7 décembre

**13:00** **Amaia Hennebutte** « Mamaiako » (ZTK)



## 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra

### ORDUTEGIA ETA KOKAPENA

Horaires et Plan

AZOKAKO ORDUTEGIA HONAKOA **DA!**




**10:30**

–



**20:00**

SARRERA DOAN



**200 ekitaldi 700 metrotan eta bost minutuko distantzian**

**DA! ASKO DIRA**

Durango Turismo Bulegoa  
eta Kuruzesantu Museoa:  
Kuruziaga, 38. 48200 Durango  
(946 03 39 38)



Artisau Azoka



Aparkalekua



Tren geltokia



Bus geltokia



Durungaldeko Adiskideen



**2018ko BERRITASUNEN KATALOGO HONEN EGILEA :**

Ce catalogue des nouveautés 2018 est édité par:

**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA · INSTITUT CULTUREL BASQUE**

Lota jauregia

64480 UZTARITZE · USTARITZ

---

**KATALOGOA ETA INFORMAZIO GUZIAK:**

Le catalogue et toutes les infos:

[www.durango.eke.eus](http://www.durango.eke.eus)

**HARREMANETARAKO · CONTACT:**

Maia Etchandy | [maia.etchandy@eke.eus](mailto:maia.etchandy@eke.eus)